
Ibilbide baten historia
Euskara, Oarsoaldea Garapen Agentzian

# GURE ESPERIENTZIA XUMEA KONTATUKO...

- 1. Testuinguru egokia edukitzearen garrantzia
- 2. Sustatzaile taldea nola sortu zen
- 3. Praktika onak
- 4. Baliabideak
- 5. Zailtasunak
- 6. Baliogarria izan dena
- 7. Neurtzearen garrantzia
- 8. Errekonozimendua
- 9. Sentiberatzea

# 1. Testuinguru egokia edukitzearen garrantzia

# Oarsoaldea



**1993an,** Errenteriako, Lezoko, Oiartzungo eta Pasaiako udalek **Oarsoaldea Garapen Agentzia sortzea erabaki zuten garapen sozioekonomikoa sustatzeko.**

**Udalen berezko baliabide izendatua 2018.urtean.**



**Agentziak honako sailak ditu egun:**
**Pertsonei Enplegu Arreta**
**Hiri-berriztapen, mugikortasuna eta energia saila**
**Ekonomia eta Lurralde garapenerako estrategia**
**Oarsoaldea Helmuga**
**Kontsumoa bulegoa**
**Euskara**
**Antolakuntza (komunikazioa eta kalitatea, giza baliabideak, arlo ekonomikoa, prebentzioa,...)**



Helburu eta finantzaketa publikoa zuen eta du agentziak eta lehenengo urteetan ez zen hizkuntza politika idatzirik, gerentziak ezarritako irizpide solte batzuk baizik.



1997an, **lau udaletako euskara alorrek elkarrekin** estuago jarduteko erabakia hartu zuten eta 1999an **euskara zerbitzua** sortu zuten lau udalekin batera eskualdeko jendartean euskara normalizatzen laguntzeko.



Zerbitzu enpresa izateaz gain, **herritarrekiko harreman zuzena** du bere eguneroko jardunean: herritarrei emanda dago ia erabat.

Horiek horrela, indarrean dagoen **legediak** herritarrak eurek aukeratzen duten hizkuntza ofizialean artatzera **behartzen du**.

**Horretaz gain, enpresak berak euskararekiko jarrera positiboa eta sentsibilitate berezia ditu bai zuzendaritza mailan, bai langileen mailan.**

**Administrazio Kontseiluaren babesa ere badugu.**

**Enpresaren nahia da hiztun guztiekiko begirunez jokatzea eta euskararen aldeko lana egitea. Euskara saila duela ahaztu gabe.**



2005ean Oarsoaldea Garapen Agentzia OLA planean sartu zen.

**OLA planaren bidez** (Oarsoaldea eskualdeko enpresetan euskararen normalizazioa eragiteko plana) **taxututako euskara plana abian jartzea erabaki zuen Oarsoaldearen Administrazio Kontseiluak.**

2005ean **ISO lortzeko kalitate sistema** ezarri zen

2006an lehenengo **kalitate auditoritza.**

**ISO kalitate ziurtagiria** lortzeko kalitate sistemako prozedurak zehazterakoan,

Giza Baliabideetako eta Komunikazioko prozedurei hizkuntza irizpideak txertatu zitzaizkien.

**2006an, Oarsoaldearen Barne Euskara Lantaldea** sortu zen.

Geroztik, batzorde honetan, kanpo aholkularitza teknikari baten laguntzarekin (EMUN), Oarsoaldearen Euskara Sailaren zuzendaria, Kalitate eta Komunikazio kudeatzailea, Antolakuntza sailaren zuzendaria, Ekonomia eta Lurralde garapenerako zuzendaria eta Pertsonei Arreta Sailaren zuzendaria ari dira lanean.



**2008an,** batzorde horren hilabete batzuetako lanaren eta **Administrazio** Kontseiluaren onespenaren fruitu, **Oarsoaldearen hizkuntza politika** ezarri eta irizpideak biltzen duen eskuliburua sortu zen.



Azkenik, garapen agentziaren hizkuntza politika arautzen duten **irizpideen esku-liburua eguneratzen** aritu da agentziako Barne Euskara Lantaldea. 2014. urtean zehar, irizpideen esku-liburuan eguneratzeak egin dira, beti ere urrats bat aurrera eginez.

2015eko ekainaren 2an Oarsoaldeako **Administrazio Kontseiluak irizpide eta hizkuntza eskakizun berriak onartu** zituen.



Irizpide berriak indarrean jarri aurretik langile guztiekin hitz egin dugu eta irizpide horiek betetzeko izan litzaketen zailtasunak aztertu dira.



2015.urtean **Zilarrezko BIKAIN-Euskararen kalitate ziurtagiria** lortu genuen.
2016.urtean **prestakuntza plana** egin genuen, langileek lanpostuetako hizkuntza eskakizun beharrei erantzun ahal izateko baliabideak eskainiz.

# OARSOALDEA GARAPEN AGENTZIAREN EUSKARAREN BARNE ERABILERA PLANA

# Ibilbidea

1

2005- Oarsoaldea OLA planean sartu zen.

2

2006-ISO kalitate sistema ezarri eta lehenengo auditoritza.

Hizkuntza irizpideak zehazten hasi.

Euskara Lan taldea sortu zen.

3

2008an hizkuntza politikaren eskuliburua onartu eta ezarri zen garapen agentzian.

4

2010-2011 hizkuntza eskakizunak onartu eta euskara sustatzaile taldea sortu.

Arraunkadak
Lehiaketak
Jokoak
Mintzakolore...

5

2014an Hizkuntza politika berriz aztertu eta egoki iritzitako aldaketak, urrats bat aurrera eginez.

6

2015 urtetik aurrera, EME markoarekin lerratu eta BIKAIN euskararen kalitate ziurtagirira aurkezten hasi (2015, 2018, 2021)

7

VII.plangintzaldia + KEMEN marko berrira egokitzapena.

8

Plan Estrategiko berria eta Kudeaketa plan berria zehaztu.

Oarsoaldea
geroa ereiten creando futuro

# Antolaketa

**Administrazio Kontseilua**

**Gerentea**

**Euskara Lan Taldea**

**Euskara Sustatzaile Taldea**

Saila desberdinetako Langileak

## Babesa eta egiten uztea

## Zuzendaritza taldeko ordezkariak

Euskara sailaren zuzendaria

Antolakuntza sailaren zuzendaria

Pertsonei enplegu arreta sailaren zuzendaria

Ekonomia eta lurralde garapenerako sailaren zuzendaria

Komunikazio eta kalitate arloetako kudeatzailea

## Zubi lanak egiten duen pertsona bat.

Komunikazio eta kalitate arloetako kudeatzailea

# 2. Sustatzaile taldea nola sortu zen

# Sustatzaile taldea nola sortu zen

- **Euskaltzale izatea**
- **Lanean eta lanetik kanpo euskaraz asko aritzen dena izatea**
- **Neurri batean, hizkuntza kontutan, eredu izan daitekeena izatea**
- **Sail bakoitzeko langile bat**
- **Oarsoaldea ezagutzen dutenak izatea**

## 15 urte



**Beranduxeago, euskara ikasten ari diren langileak ere taldean sartu dira, beraien ikuspuntua kontuan hartzeko. Euskararekiko sentsibilitate desberdinak dituztenak taldean.**

**ANIZTASUNA**



# Zertarako sortu genuen?

**Euskararen ahozko erabileran eragiteko modu ludikoan eta arlo informal batean.**

**Funtzionamendua:** Urtean 2-3 bilera aurrez aurrekoak.
Sustatzaile taldearen teams taldean hartu-emanak.
EMUN aholkularitzaren laguntza hasierako urteetan.

# Talde irekia

**Garapen Agentziaren langile desberdinak igaro dira bertatik.**

**Gure sustatzaile taldearen eta beste enpresetako sustatzaile taldeen arteko hartu-emanak.**








# 3. Praktika onak

## Garapen Agentzian egindakoak



# Komunikazio bidea sortu

**eneuskarazporfavor@oarsoaldea.eus**

**Orain Teams-en “Xuxurlariak” kanala dugu.**





# Lehen aholkua:

**Hasieran egiteko errazak eta esfortzu handia suposatzen ez duten horiek antolatu.**

# Lehiaketak

**Beroketa**

# Lehiaketa ttikiak

## Logika jokoak

Hiru ikasle unibertsitate-ikasketak egiten hasi dira aurten baina, zenbait fakultatetako leku-eskasia dela era, ez dira nahi zuten karrera egiten ari. Ondoko datuok egoki erabiliz gero, dena jakingo duzu: **ikasle bakoitzak zer ikasi nahi zuen eta, ezinbestean, zer ikasten ari den**.

1. Joseba Badiola mutil azkarra da oso.
2. Jagobak Biologiari ekin dion bitartean, Artetxek arkitektoa izan nahi zuen.
3. Kimika egiten ari denak inoiz ez du Fisika gustukoa izan.
4. Medikuntza egiten ari dena ez da Zugasti.
5. Ez Jonek ez Badiolak ez zuten ingeniari izan nahi.

| | | ABIZENA | | | IKASI NAHI | | | IKASTEN ARI | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Artetxe | Badiola | Zugasti | Arkitektura | Fisika | Ingeniaritza | Biologia | Kimika | Medikuntza |
| IZENA | Jagoba | | | | | | | | | |
| | Jon | | | | | | | | | |
| | Joseba | | | | | | | | | |
| IKASTEN ARI | Biologia | | | | | | | | | |
| | Kimika | | | | | | | | | |
| | Medikuntza | | | | | | | | | |
| IKASI NAHI | Arkitektura | | | | | | | | | |
| | Fisika | | | | | | | | | |
| | Ingeniaritza | | | | | | | | | |

Erantzuna:

| IZENA | ABIZENA | IKASI NAHI | IKASTEN ARI |
|---|---|---|---|
| | | | |
| | | | |
| | | | |

## Hizki zopak



## Burubausteak

**2. Beltzetik ez badago...**



**3. Zerk eramango gaitu urrutira?**



## Piropo Lehiaketa

**1. FROGA:**



Euskaraz ligatzea posible dela sinistu egin behar dugu, eta euskarazko piropo politak bilatu, eta ez badítugu topatzen,... sortu!!. Bale, denetatik onartuko dugu, baina faborez, ez idatzi "loreak mendian, eta zu nere bihotzean" ze bueno, barre egingo dugu zutaz hain fifi izanagatik. Ez, kontua, eta helburua, piropo xelebreak eta gaziak topatzea da, euskal morroska edo morrosko guapo horitako bati esateko esaldi poetikoak eta barrenekoak. Espontaneidadea eta naturaltasuna. Guk etxean honako hau topatu dugu:

**"Zu bazina sagarra eta ni banintz harra jango nuke baita... zuztarra"**

# Oporretako argazki lehiaketa




EUSKARAZ GEHITXIO, TXIO, TXIO

# Gaztetako argazki lehiaketa



Oarsoaldea
geroa ereiten creando futuro
Errenteria Lezo Oiartzun Pasaia

# Gaztetako argazki lehiaketa

## Sustatzaile Taldea



2."Eusko Label" ziurtagiria jaso du



9."Behatzen..."



14. Yaki eta biok. Beti nire lagunekin..."



10."Nahiz eta lotsatia izan beti jendaurrean"



12."Sorgina Pirulina"



13."Gaixo nintzen eta etxean geratu nintzen egun bat."



8."Lotsagabe itxura izan arren, beti izan naiz pixka bat lotsatia"

EUSKARAZ GEHITXIO, TXIO, TXIO

# Ahozko erabileran zuzenean eragiten dutenak

Eragiten


Arraunkadak




1. kidearen izen-abizenak:

2. arraunkidearen izen-abizenak:

Txalupari jarriko diozuen izena:

## Egitasmoaren pausoak:

1 15 egunetan zehar, elkarri 15 mezu emailez euskara hutsean.

Saria: Txalupa bat



2 15 egunetan zehar elkarrekin ahoz euskara hutsean.

Saria: Arraunak



3 Beste 15 egun izango ditugu arraunkidearekin ahoz eta idatziz euskaraz aritzeko.

Saria: Bela



Piktochart
make information beautiful

Ekimenaren balorazioa. ekimenean bertan parte hartu zutenak egin zuten.

EUSKARAZ GEHITXIO, TXIO, TXIO







EUSKARAZ GEHITXIO, TXIO, TXIO

Oarsoaldea
geroa ereiten creando futuro
Errenteria Lezo Oiartzun Pasaia

# MintzaKOLORE

MINTZA KOLORE









EUSKARAZ GEHITXIO, TXIO, TXIO

# NIGUZU GUZUNI



# OHITURAK ALDATZEKO LEHIAN

EUSKARAZ GEHITXIO, TXIO, TXIO



# JOXE LUIX AGIRRETXEK KALERATUTAKO LIBURU BERRIA: 'HERIORI EBATSITAKO POEMAK'

Larunbatean izan zen Joxe Luix Agirretxek argitaratutako olerki liburu berriaren aurkezpena, Lezon. 30 bat pertsonek aukera izan zuten liburuaren nondik-norakoak gertutik ezagutzeko eta literaturan guztiz murgiltzeko. Maiatz argitaletxearekin kaleratu du liburua eta nahi duenak Hontza liburudendan izango du eskuragarri, bai online formatuan bai dendan bertan.

Aukera bikaina Joxe Luixen testu zoragarrietan murgiltzeko!

Liburua online hemen eskuratu dezakezu: https://labur.eus/yAsx5

## PLANAK OARSOALDEAN: OIELEKU ESTAZIO MEGALITIKOA

Cromlechak Burdin aroko hileta monumentuak dira, eta Aiako Harria Parke Naturalean Euskal Herriko cromlech multzo handiena topatuko dugu.

Oiartzungo Oieleku estazio megalitikora iristeko bi ibilbide aurkituko ditugu. Alde batetik, Oiartzun eta Artikutza lotzen dituen GI - 3631 errepidea hartu dezakegu eta autoa Kauson utzi, non bi cromlech ederrekin topo egingo dugun. Hego Oielekura iritsiko gara lehendabizi.





Bertan atseden gune bat aurkituko dugu, geldialditxo bat egiteko egokia, eta hortik jarraituz Ipar Oielekuko cromlechera iritsiko gara. Bestetik, Munerretik joan gaitezke, errepidearen beste gune batetik, eta 1,5km inguruko ibilbidea egingo dugu pagoz beteriko baso batean zehar.

Informazio gehiago hemen

# Bizipoza barne aldizkaria

**OARSOLAN**

ENPLEGU ETA INKLUSIORAKO BERRIKUNTZA ZENTROA

CENTRO DE INNOVACIÓN PARA EL EMPLEO Y LA INCLUSIÓN

# *Barneko paisaia*
















# Kanpo egitasmoetako olatuaz baliatuz, etxean egindakoak

**Lurralde mailako egitasmoekin bat egiten**


AMA

# Aho bizi, gu prest!

AHO BIZI, GU PREST

AHO BIZI, GU PREST

Lanean

GURE ARTEAN-BEZEROEKIN-HORNITZAILEEKIN

AHO BIZI, GU PREST

ETXEAN

...eta lanean ere bai, eh?

AHO BIZI, GU PREST

lanean...etxean...eta

munduan

# Euskaraldiaren baitan, gehitxio, txio-txioka!



# Euskaraldiaren baitan, gehitxio, txio-txioka!



# Euskaraldiaren baitan, gehitxio, txio-txioka!



# Euskaraldiaren baitan, gehitxio, txio-txioka!



Oarsoaldea
geroa ereiten creando futuro
Errenteria Lezo Oiartzun Pasaia

# Gure taldeak maskota behar zuen eta...







Gehitxio sortu genuen.

Oarsoaldea
geroa ereiten creando futuro
Errenteria Lezo Oiartzun Pasaia

# KLIKA-KLIKA Oarsoaldea korrika



# Egunean Behin







*Une honetan lehian gabiltza!*

"Zorion eskua"
sorioneku
sorionesku
sorioneskuara
zorion esku
zorioneko esku
zorioneko euskara
zorionak euskara
zorionekoak gara
euskaraz

**Hitzak: Jon Maia**





ABENDUAK 3
EUSKARAREN EGUNA
PENTSATU... SENTITU... GOZATU EUSKARAZ!!
NIRE ERRONKA EUSKARALDIAN DA...
EUSKARALDIA
NOLA HOBETUKO ZENUKE AHOZKO ERABILERA ZURE LANEAN ETA BULEGOAN?
EUSKARALDIA
ZEIN DA ZURETZAKO EUSKARAZKO HITZIK POLITENA?
EUSKARALDIA



# Pilulak

EUSKARALDIA

**Euskara mundua kolorez ikusteko gure betaurrekoa.**

18 Hizkuntza eta kultura aniztasuna

# Pilulak

**Gutako bakoitzak Hizkuntza asko ukan ditzakegu**
**baina euskarak gu bakarrik gaitu.**
**Eman diezaiogun, bada, arnasa euskarari!**

18 Hizkuntza eta kultura aniztasuna

EUSKARALDIA

18 Hizkuntza eta kultura aniztasuna

# Pilulak

## Kaixo, guztioi!

**Murgildu gara bete-betean, dagoeneko, Euskaraldiaren hirugarren edizioan.**

**Hitza, ekintza eta garaia. Horiek dira aurtengo hiru oinarriak. Batetik, hitza da komunikatzeko dugun tresnarik indartsuena. Bestetik, ekintza da motibazioa gauzatzeko, harreman-sareak ugaritzeko eta ohiturak aldatzeko erreminta. Eta, azkenik, urrats sendoak egiteko garaia da Euskaraldia.**

**Hitzez ekinez gu mugituko gara eta gure ingurukoak mugiaraziko ditugu, baita mugituko ez direla uste dugun horiek ere.**



# 4. Baliabideak

**Egoera honen hobekuntza langile guztion aldeko borondateagatik lortu da, praktika onak aurrera eramateko baliabide gutxi erabili dira neurri eta ekintza guzti hauek aurrera eramateko.**

**Sustatzaile taldearen inplikazioa eta enpresaren inplikazioa garrantzitsua da.**

# 5. Zailtasunak

Zerbait berria denean hasierako erreakzioak edo inertziaren kontra joan beharra.

Gauzak ondo komunikatzearen garrantzia.

Unean uneko lan giroak eta lan kargak eragina du egitasmoen parte hartzean. Langileen motibazioa eta sustatzaile taldearenak eragina du.

Unean uneko egoeraren arabera, egitasmoen zailtasunak neurtzea eta "eskubiko eskua" edukitzea.

Urteak igaro ahala, berritzailea izateko esfortzu gehiago. Ideiak agortzen dihoaz.

Talde irekia izatearen garrantzia eta ideiak sortzeko gaitasunak dituztenak taldean egotea.

Saririk gabeko egitasmoetan parte hartzeko zailtasun gehiago.

Sentiberatze lana garrantzitsua da.

# 6. Baliogarria izan dena

Lan orduetan bilerak egiteko askatasuna.

Barne errekonozimendua egitea. Ekitaldi bat egin genuen horretarako.

Egitasmoetan sariak jartzea. Saria opor egun bat denean, arrakasta bermatua!

Enpresaren eta sustatzaileen prestutasuna.

Egitasmoak langile talde batek antolatua izateak laguntzen du. Ez da enpresak egindako zerbait edo inposatutako zerbait.

Akuilu lana egitea. Zirikatzaile papera egitea. Egitasmoetan jendea parte hartzera animatzea.

Sustatzaile taldearen eta euskara lan taldearen arteko zubi lanak egiten duen pertsona bat egotea lagungarria da.

Unean uneko lan kargak kontuan hartuta, egitasmoen prestaketa esfortzua neurtu, egokitu. Baita egitasmoak berak parte hartzen duten langileei eskatzen dien dedikazioa ere neurtu, egokitu.

Baldintza egokiak izatearen garrantzia, paraleloki enpresak egitean duen lanaren garrantzia.

Egitasmoak komunikazio mailan lantzea (logoak, irudiak, modu erakargarrian aurkeztu ekimenak).

# 7. Neurtzearen garrantzia

**Neurketak metodologia bati jarraiki**

1. Hizkuntza irizpideen neurketak — Euskara Lan Taldeak
2. Ahozko erabileraren neurketa — Euskara Sustatzaile Taldeak
3. Bikain neurketak (barne eta kanpo) — Euskara Lan Taldea eta Sustatzaile taldea modu bateratuan
4. SAREGIN (Galdetegiak) — Langileen iritziak jaso
%70 parte hartzea

# 7. Neurtzearen garrantzia

## Ahozko erabilera neurketak

**2010** barruko **ahozko eta idatzizko harremanak** euskaraz **%78**

**2018** **ahozko** erabilera **%68,30** EMUN-ek adierazitako batezbestekoa baino altuagoa

**2021** **ahozko** erabilera **%67,57** EMUN-ek adierazitako batezbestekoa baino altuagoa

**2025** neurketa berriak egingo dira ekaina aldera

*Txipa buruan!!!*

Sustatzaile taldearen egitasmoek ahozko erabilera urteetan zehar mantentzea ahalbidetu du.

2015 Bikain
euskararen kalitate ziurtagiria

2018 Bikain
euskararen kalitate ziurtagiria

2021 Bikain
euskararen kalitate ziurtagiria
certificado de calidad en la gestión lingüística

Badatoztela badatoztela,
koloreak aterako dizkigutela!

# 8. Errekonozimendua






# 9. Sentiberatzea

## Langile berriei harrera

sustatzaile taldearen berri eman
eta euskararen erabileraren
garrantziaz jabearazi.

# 9. Sentiberatzea

# Oarsoaldea Euskararen Nazioarteko Egunarekin



# Partekatzea

**Zerbait zurea dela sentitzen duzunean, eta euskarak duen nortasun indartsua sentitzen duzunean, partekatzeko gogoa pizten zaizu. Eta partekatuta, are handiago bihurtzen da. Errotuagoa, konektatuagoa.**


Mila esker!!